

# Natura E!

Ingurumena artatzeko proiektu kolektiboa



*Woodwardia radicans* (iratze bat) Azkaiturri errekatxoko espezie Zaugarria. Udalak sustatutako berrezarpen proiektuak, bere habitatean, tximeleta zuhaitza eta panpa-belarraren hedapena mugatu du.

## Herritar zientzia Erandion

Zelan artatu dezakegun bioaniztasuna

*NaturaE!* proiektua gure ingurunean flora inbaditzaileak eragiten dituen arazoak eta bioaniztasunean dituen inpaktuak ezagutarazteko asmoz, herritarren parte-hartzea laguntzeko sortua da. Hiru urrats oso sinpleren bidez, udal mapan arrotzak diren espezie inbaditzaileen kontzentrazio handiko puntuak zein hedapen gune berriak kokatu ahal izango ditugu. Informazio hau oso baliagarria izango da espezie horien dinamika aurreikusteko, haien hedapena mugatzeko asmoz neurriak ezarri ahal izateko eta ekosistemak eraldatzeko duten ahalmena ekiditeko.

1

### IDENTIFIKATU

Eraldatze eta inbaditzaile ahalmen handiko hiru espezie horiek identifikatzen ikasi.

2

### ARGAZKIA EGIN

Geografikoki mapan kokatu ahal izateko sakeleko telefonoa baliatuta argazkia egin

3


### IGO

*NaturaE!* web orrian sartu eta espezie inbaditzaileen mapara argazkia igo.



### Panpa-belarra

Jatorriz Hego Amerikako belarra da: Argentina. Eraldatze izaera duen espezie inbaditzailea



### Tximeleta zuhaitza

Jatorriz Asia Ekialdeko zuhaixka da: Txina. Eraldatze izaera duen espezie inbaditzailea.



### Mimosa

Jatorriz Australiakoa eta Tasmaniakoa da. Espezie inbaditzailea.



udalsarea 2030  
udalerri jasangarrien euskal sarea  
red vasca de municipios sostenibles



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA

# Zer dira landare inbaditzaileak?

## Non daude eta Erandion zein habitatetan kokatzen dira?

### PANPA-BELARRA

Belar-landarea da. Hosto ebakitzailak dituzte eta 3 m-ko altuera izan dezaketen sastraka lodien itxuraz hazten dira, bertatik luma-motots zuri ederrak diren loreak jaiotzen direlarik. Bakoitzak eremu berriak koloniza dezaketen 100.000 inguru hazi sortu ditzake. Ez ditu klima hotzak atsegin, ondorioz, kostaldean du bere inbaditzaile izaera handien. Negu epelek bere hazkunde aldia 10 hilabetera luzatzen dute bertoko espezieekiko abantaila lortuz. Lur hezeak nahiago ditu eta horrengatik udal honetan, Erandiobason, Askaiturri errekatxoan eta haren ibaiadarretan ezarri dira.



*Cortaderia selloana*

### TXIMELETA ZUHAITZA


Zuhaixka bat da. Tximeletek polinizatzen dituzten lore ugari sortzen ditu. Ugalketa nagusiki haziaz gauzatzen da eta oso oparoa izan daiteke. Haziak oso txikiak direnez haizeak distantzia handietara barreia ditzake landaredi gabeko eremuak kolonizatuz. Ugalketa sustraien bitartez ere gauza daiteke eta horrengatik desagerrarazteko orduan metodo mekanikoak ez dira eraginkorrak. Indartsu hazten da eta landare komunitate trinkoak osatzen ditu bertoko espezien ezarpena zailduz. Eremu hezeetan eta erreken eta errekatxoan ibaiertzetan ondorioak are nabarmenagoak dira. Erandioko Erandiobason, Askaiturriko errekatxo inguruan dago presente.



*Budelaja davidii*

### MIMOSA

Zuhaitz hosto iraunkorra. Lore-globo horiak ditu eta fruitua lekan hazten da. Espezie rustikoa da, eremu pobreetan haz daitekeena. Sute ostean modu oparoan birsortze eta ernatzeko ahalmena du, beraz, gertaera katastrofikoek bere inbaditzaile izaera areagotzen dute. Baldintza epelak atsegin ditu, ondorioz, klimaren berotze efektuak bere hedapena arindu dezake. Espezie honek bere adaburu azpian beste zuhaitz eta zuhaixken garapena ahalbideratzen ez dituen baso trinkoak sortzen ditu. Bestetik, bertoko espezien ernalketa eta garapena oztopatzen duen sustantzia fitotoxikoak jariatzen ditu. Erandion, eremu garrantzitsuena Karabezu mendian dago.



*Acacia dealbata*